

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GORBEIALDEKO KUADRILLA

Azterketa eskubideen tasa arautzen duen ordenantza fiskalaren behin betiko onarpena

Azterketa eskubideengatiko tasaren tasak arautzen dituen ordenantza fiskala behin-behinean onartzeko kuadrillako batzarrak 2022ko azaroaren 23an egindako bileran hartutako erabakia jendaurrean jartzeko epea igarota, eta horretarako ezarritako epean inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez, erabaki hori behin betiko bihurtu da, Toki Ogasunak Arautzen dituen Foru Arauaren testu bateginaren 19.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik (Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onartu zen testu bategin hori).

Aipatutako lege-testuaren 19.4 artikuluan aurreikusitakoa betez, behin betiko bihurtu den erabakia osorik argitaratzen da, eta ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aplikatuko da.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikulua araberak. Nolanahi ere, egoki iritzitako beste edozein errekurtsio aurkez dezake.

Murgian, 2023ko urtarrilaren 19an

Presidente

AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA

**1 AZTERKETA-ESKUBIDEENGATIK ORDAINDU BEHARREKO
TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA****I. FUNTSA ETA IZAERA****1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 15. artikulutik 19.era bitartekoetan xedatutakoaren ildotik ezartzen du Gorbeialdeko Kuadrillak "azterketa-eskubideengatik ordaindu beharreko tasa", eta ordenantza fiskal honetan arautzen.

II. ZERGA-EGITATEA**2. artikulua**

Honako hau da tasaren zerga-egitatea:

- a) Gorbeialdeko Kuadrillak hutsik dauden funtzionario edo laboral lanpostuak jabetzan betetzeko deitzen dituen azterketa, merezimendu-lehiaketa eta azterketa / merezimendu-lehiaketa ireki nahiz murriztuetan parte hartzeko eskabidea egitea.
- b) Gorbeialdeko Kuadrillak kontratazio zerrendak sortzeko deitzen dituen hautatze prozesuetan parte hartzeko eskabidea egitea, baldin eta zuzeneko deialdien bitartez bideratzen badira eta gutxienez ariketa bat egitea badakarte berekin.

III. SUBJEKTU PASIBOA**3. artikulua**

Honakoak dira zergapeko subjektu pasiboak: izangai gisa, iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko azterketa, merezimendu-

lehiaketa eta azterketa / merezimendu-lehiaketetara aurkezten diren pertsona fisikoak, izan irekiak, murriztuak edo salbuespenezkoak, eta, era berean, Gorbeialdeko Kuadrillak funtzionario plaza hutsak jabetzan betetzeko deitzen dituen hautaketa-prozesuetara aurkezten direnak, Kontratazio Zerrendak osatzeko helburuarekin.

IV. ZERGAREN KUOTA

4. artikulua

Bete beharreko lanpostuaren taldearen arabera zehaztuko da lehiatzaile edo hautagai bakoitzak ordaindu beharko duen kuota, ondorengo eskala hau baliatuz:

A) Lehiaketa bidez bete beharreko lan eskaintza publikoa:

Taldea	2022ko kuotak
A	42,02 euro
B	35,02 euro
C	30,02 euro
D	30,02 euro
E	--- euro

B) Oposizio-lehiaketa bidez bete beharreko lan eskaintza publikoa:

Taldea	2022ko kuotak
A	58,09 euro
B	45,18 euro
C	36,97 euro
D	36,97 euro
E	--- euro

Aurreko tarifei honako murrizketa hauek aplikatuko zaizkie:

a) % 100ekoa, gutxienez sei hilabeteko antzinatasuna duten enplegu-eskatzaile gisa agertzen diren pertsonen, hautaketa-proben deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean.

b) % 100ekoa, ehuneko 33ko minusbaliotasuna edo handiagoa aitortuta duten eta minusbaliotasun-txandarako plazak erreserbatuta ez dauden deialdietara aurkeztu diren pertsonen.

c) % 100ekoa, genero-indarkeriaren biktimek.

d) Tasaren kuota ehuneko 50 murrizteko eskubidea izango dute eskabidea aurkeztu duten egunean kategoría orokorreko familia ugariako kide direla aitortuta dutenak.

e) Tasaren kuota ehuneko 50 murrizteko eskubidea izango dute eskaera aurkeztu den egunean guraso bakarreko familia osatzen duten pertsonen.

AZTERKETAREN KOPIAK: Azterketaren kopiak: 8 euro azterketa bakoitzeko —galdera-orrien kopia, erantzun-orriaren kopia eta, kasu kasu, zuzenketa-irizpide orokorren edo erantzun zuzenen txantiloia barne—.

AKTA-EGIAZTAGIRIAK: 8 euro egiaztasun bakoitzeko. Egiaztasunak banakoak izango dira beti.

V. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

5. artikulua

Lortu nahi den plaza bakoitzeko tasa nominala eta banakakoa ordaintzeko, diru-sarrera agindua eman beharko da. Eskaera aurkeztean emango da agindua, kuadrillak zehazten duen kontu-zenbakian. Transferentzia interesdunaren izena eta lortu nahi den plazaren izena jasoko dira. Izangaiak ordainagiria gorde beharko du.

Ordaindutako zenbatekoa ez da itzuliko administrazio-jarduera subjektu pasiboari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik ematen ez denean.

Subjektu pasiboari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik ordenantza honetan aipatzen den administrazio-jarduera egiten ez denean edo behar ez bezala egiten denean, subjektu pasiboak ordaindutako zenbatekoa itzultzeko eskatu ahal izango du.

Xedapen gehigarria

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat, jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

Azken xedapena

Ordenantza hau, behin betiko onespeneraren erabakia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.